

Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi Saindu batzuen biziak. 2007
2. *Pierre Charriton*. Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande*. Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*. Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*. Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Bizien hiztegiak. 2009
8. *Gorka Aulestia*. Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*. Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*. Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister*. Jesü Kristen imitazioa. 2010
14. *Gorka Aulestia*. Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile*. Xiberoko antzertia edo pastora. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant*. Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*. Zaldubi Gaineratekoen bilduma. 2012
21. *Ernest Daudet*. Amodioaren Martirra. 2013
22. *Jean-Baptiste Coyos*. Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri. 2013
23. *Pierre Charriton*. Le fondement moral des droits culturels de l'homme (Kultura eskubideen oinarri etikoak). 2013
24. *P. Dourisbourg*. Bahnar deitu Salbaiak. 2014
25. *Mongongo Dassanza*. Albaitaritzako idazlanak (1692-1892). 2014
26. *Ignazio Omaetxebarria*. Euskara barrutik Estudios de lingüística vasca
27. *Resurrección Mari Azkue*. Ardi galdua

Euskaltzainak izeneko bilduman euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta euri buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque

Laguntzaileak:



JAKES SARRAILLET

JANPIERRA LEXARDOARTEREN BIZITZEA EDO BASABÜRÜAREN TRAJERIA



EUSKALTZAINAK BILDUMA
EUSKALTZAINDIA



JAKES SARRAILLET (1959)

Maulen (Zuberoan) sortua. Euskaltzain urgazle izendatua 2006ko maiatzaren 26an. Euskal hizkuntza eta kulturaren diploma erdietsi zuen 1988an, Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitateko Baionako fakultatean eta bost urte geroago euskara masterra Paueko Fakultatean. Euskara alorreko lehen mailako ibilkaria eta bigarren mailako euskara irakaslea izan ondotik, egun Bordeleko Akademiaren euskara ikuskaria da.

Zenbait lan idatzi ditu:

- 1995: J. de Jauregiberriren *Basabürüan* lana zuberera itzuli, Maiatz argitaletxeak argitaratu zuen.
- 2007tik aitzina: 15 nobela labur *Maiatz* aldizkarian argitaratu ditu, zubereraz.
- 2015: A. Xahoren *Nafarroako bidaja* lana zubereraz itzuli, Sü Azia elkarteak argitaratu zuen.
- 2018: A. Xahoren *Bidaia Nafarroara euskaldunen oldartzearen denboran* lana euskara batura egokitu du, X. Zabaltzarekin elkarlanean. Maiatz argitaletxeak argitaratu zuen.





JAKES SARRILLET
JANPIERRA LEXARDOARTEREN BIZITZEA
EDO BASABÜRÜAREN TRAJERIA

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteko katalogoan:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la Biblioteca Azkue de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

© Jakes Sarraillet

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S.L.

Maketatzea: Composiciones RALI, S.A.

Inprimatzea: G.Z. Printek, S.A.L.

ISBN: 978-84-948489-7-1

Lege-gordailua:

BI-1844-2018

JAKES SARRAILLET

JANPIERRA LEXARDOARTEREN
BIZITZEA EDO BASABÜRÜAREN
TRAJERIA

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2018



Aitzinsolasa

Janpierra Lexardoarte pastoralala

Hemeretzigarren mendearen bukaeran sortuak, gure axaita, amatxi edo aitañiek eta haien ondokoek dute hogeigarrena egin.

Pastoral honen gaia da. Mendea zeharkatzeko suertea izan duen Ipar Euskal Herriko gizon xume baten bizitzearen kondatzea.

Suertea diot, zeren anitzek ez baitute izan. Jakina da, mende hau odolezko zigiluz markatu duen lehen gertakaria I4ko gerla izan dela. Denbora berean eta manera berezi batez, orduan da mundu « modernoa » agertzen hasi, 1914ko agorrilaren Iean, Frantziak mobilizazio orokorreko deia erabaki zuelarik. Osoki zuzena da beraz, gerla honek leku garrantzitsua ukan dezan Janpierra Lexardoarteren pastoralean. Bera, Ipar Euskal Herriko beste hamar mila gizon gazte bezala, Frantziaren alde armen hartzera deitua izan zen, nahiz anitzetan frantsesera ez jakin edo oso guti baizik ez, Gorka Knörrek bere kantuan zioen bezala. Gazte denborako ezazolkeria arinak bazterturik, joan zen Janpierra, zuzen jakin gabe nora baina nahiko konbentziturik, 44 urte lehenago Alemaniaren garaipenaren ordaina hartuko zuela Frantziak, gerla labur eta errex batean. Segida ezagutzen dugu. . .



Alozko pastoralala – *Abraham* 1928

Gerlaren ondoko urteak hitsak izan ziren, azkarki odolosturiko Zuberoako bazter kordokatuetan. Froga, 1922 arte ez zela pastoralik eman Zuberoan (jakinik gerla aitzineko garaietan, urtero bat, bi edo hiru antolatzen zela) gogo edo jende eskasez, orduan gizonak baizik ez baitzuten parte hartzen.

Ondotik, 1929ko krisia ekonomikoa mundiala, hari lotua faxismoaren garapena eta are izigarriagoa izanen zen bigarren mundu gerlaren piztea.

Janpierrak hala ere, familia bat sortu zuen eta ez zen berehala ohartu gauzak ez zirela sekulan gehiago lehen bezala izanen. Bizia aitzina zoan bere betiko zorigaitz eta onekin, lana eta ohidurak... baina modernitateak funtsezko aldaketak zekartzen. Gazteak ez ziren gehiago baserrian bizi nahi, neskak hirira joaten ziren, mutiko gehienak etxean donado eta etsiturik utziz, hizkuntza eta kultura gutietsiak eta batzertuak ziren, betiko baserri ekonomia ezdeustua, lehengo mundua zangoz gora eta peko errekarra!

Iduri zuen bai, dena bukatua zela. Baina Euskal Herria bizikor eta tematia da.

Amak dit pastoral honen idazteko gogo eman (berak ez daki, goian bego) eta, neurri handi batean, ondotik irakurriko duzuen zor diot. Urte luzetan kondaturiko oroitzapen, sinesmen eta anekdotaz beterik da pastoral hau. Nik, orain osoki desagertua den mundu baten azken apurak ezagutzeko suertea izan dut eta nonbait, ondoko belaunaldiei eskainitako mezua eta lekukotasuna izan nahi da pastoral hau.

Heroiak ez dira baitezpada *don, de* edo askazi handiko jendeak. Heroiak gu guzuen arbasoak dira, jende xume ahal gutikoak baina jendetasun oparokoak, biziaren gogorkeria eta zailtasunei buru egiten jakin dutenak, hemendik aitzina ere euskaldun harroak izan gaitzen.



Napoleon pastoreko aktorea
Lakarri 1910

Formaren aldetik, erran daiteke pastoral hau tradizionala dela, I7 jelkaldi, lehen eta azken peredikueta gain, sei kantu eta dantza bat. Betiko satanak, aingeruak eta apezka ahanzi gabe.

Kantu berri batzuk badira bainan ere Etxahon Irurik idatzitako bi (*Espes esposen kantorea* eta *Eüskal Herriko plaza hanitx*), giro eta garaiari oso egokituak iduritu zaizkidalako. Bera 1908an sortu zen eta bete-betean ezagutu zituen bigarren mundu gerlaren ondoko euskal gizartearen beherakada, bai eta 60ko hamarkadatik landa hasi zen berpizkundearen hasiera ere.

Emazteek, nola ez, leku garrantzitsua dute pastoral honetan (jelkaldi oso bat eta artzaintsen kantua, besteak beste) oroitarazteko gizarte batek zuzen ibiltzeko bi zangoak behar dituela. Hauek ere, amak izateaz gain, eguneroko heroiak izan dira eta dira, nekezia guzien kontra biziaren haria etetea ekidin baitute.


J. SARRILLET



Urdiñarbeko pastoral *Sainte-Hélène de Constantinople* 1909
Arizaleak eta musikariak



Urdiñarbeko pastoral *Sainte-Hélène de Constantinople* 1909
Publikoaren parte bat



Urdiñarbeko pastoral *Sainte-Hélène de Constantinople* 1909
Arizaleak tauladaren gainean

JANPIERRA LEXARDOARTEREN BIZITZEA EDO BASABÜRÜAREN TRAJERIA

JAKES SARRAILLET



Lehen perediküa

Arrestiri hon jente honak
pastoralzale fidelak,
Eüskararen maitalariak
jente errespetableak.

Hogeigerren mentea
gure Basabürü maitean,
Gogor eta latz izan da
bardin Europa güzian.

Sortü ziren « Belle époque » an
amets handiak бүrüan,
Hanitx ehortzirik izan da
Gerla Handiko lohian !

Igaran dütüe urteak
etsaiaren güdükatzen,
Bena defendatü düena
oroen бүrüan zer ote da ?

Frentetik arrajin zirenak
bakean bizi nahi ziren
Eta zinez uste züen
Azkenen Azkena zatekeala.

Hamar urte baketik landa
ordüan Krisa Handia,
Eta harekin batean
fanatismo izigarria.

Ihork ez züan uste
posible zatekeala,
Bena sordei izan zen
bigarren gerla mündiala.

Ondotik mündü zaharra
jadanik ontsa kordoka,
Hasiko zen gain behera
hunki artino zola.

Herriak, bortüa hüsten
Üsantxa zaharrak baztertzen,
Mintzajea erdainatzen
gaixki partitürük ginen.

Erakusten dü historiak
Eüskaldünak pilota balde,
Etsaiaren ezustean
Badakiala punpatzen.

Hala da Basabürütarra
ganodün eta azkarra,
Geroari dio axüt !
Etxek eta jo aitzina !

Satanak
(lehen peredikütik landa)

Jelki: Asmodée eta Samaël satanak.

Asmodée

Aspaldian ari gütük
trebeskeria antolatzen,
Hogeigerren mente honek
dikük parada eder emanen!!

Samaël

Hori segür ere hala dük
txülübita badükek!
Odolzaleak eta ertzoak
ez dirateke batere ments!

Asmodée

Audela jentartea
ezariko diagü zankoz gora!
Eta sordei dateke
oraidanik mündüa!

Samaël

Bai arrazoi dük biba gü!
gure nausia kontent dükek.
Egia dük hortan gütüela
ontsa lagüntzen jenteek!

I^o jelkaldia

Jelki: aita, ama, axaita, axama, Graxi, koblakaria
1895 Janpierraren sortzea ospatzen düe.

Aita

Hori dügü egün handia!
bai boztarioz betea!
Zeren gure lehen haurra
potiko azkarra beita.

Margarita en'emaztea
egin deitazüt grazia
Familiaren handitzea
segidaren emaita.

Ama

Bai ni ere botzik nüzü!
arrunt bateia dezagün.
“Jauna, zurekin har ezazü
Janpierra deitüren düzü.”

Axaita

Margaritak arrazoi badü
Jinkoak jakin behar dü.
Eta orai banoazü
Behar 'tüt erleak abisatü.

Axama

Apirilaren hamalaua
jagoiti dateke besta
Lexardoarteko segida
orai segürtatürük da.

Graxi (amaren küzüina)

Margarita eitzi dezagün
ontsa pausa dadin egün
Ezkaratza xaha dezagün
bai eta egin apaidü.

Koblakaria (*Bi berseten hontzera*)

Jin arazi näüzüe, honarat jente honak,
Kantorez ospatzeko, bai sortze berri bat.
Nik orai eginen düt, ahal bezain ontsa
Plazer egiten beitü, züen ikusteak.

Ez dizü hain aspaldi, Barkoxe herrian
Zentü dela gizon bat, oi Etxahonean.
Harek bai bazakian, aritzen koblakan
Oro txista, txasko, 'ta errefartakan.

Potiko txipiari suhetatzen deiot
Bizi hona, lüzea eta diharüxkot,
Emazteenganik üken ardüra hanitx pot
Adiskide honak bai eta lanari lot.

Parka ezadazüe ene kobla txarra
Egia erran badüt idorxka züntzürra!
Zin dagizüet orai, hori ez da gezürra
Apaidütik landa bai, kantore ederra!

2º jekaldia (hautzaroa)

Jelki Janpierraren aita, ama, axama, apeza eta errejenta.
1905 Potiko txipiaren bizitzea 10 bat urteren inguruan.

Aita

Janpierra abiloa zale
gure ardien jeistera,
Ez ahatz arrajitean
mandoaren bazkatzea.

Hire osaba arotza
abis'ezak berehala
Jin dakigün ikustera
harentako badiat lana.

Ama

Oi ene seme maitea,
beztu hadi, negüa da!
Bai eta eskalanpoak
ontsa belarrez beta.

Etxetto (aüzo lagüna)

Egün hon Janpierra,
norat ari hiz hain presaka?
Orai pelota partida
egin dezagün gustüan.

Apeza

Daigün iganteko mezan
ikusit nahi haüt elizan!
Et'ez üsatü bezala
adiskideekin txostakan!

Errejenta

Jean Pierre tu dois m'écouter
à l'école il faut travailler!
Si tu veux être un bon français
le basque, laisse-le tomber!

Axama

Ene potiko txipia
aigü ene besoetara
Enetako hiz maitea
bizitzeko arrazoa!

Apezak erraiten düana
ontsa sinetsi behar da.
Zeren Jaungoikoa beita
mündü honen egilea.

Egün Kanderailü beita
motz ezak kabale bilo,
Elizan erre-arazteko
eritarzünen ohiltzeko.

3º jelkaldia

Jelki Janpierra, Allande, Pette, Johaine, Joanes, Jüje eta Gregori bere lagünak.
1913 Hogeï urte üngürüko adiskideak elestan, horien esperantxak eta arrenkürak.

Janpierra

Bedakak eginik dira
sartürik ere bai üztak
Eta bortüan ardiak,
liberti gitean denak!

Allande

Bai arrazoi dük Janpierra
soinüzale joanen gütüik
Gamereko eliza bestak
egün hasten ümen dütüik.

Pette

Goatzan arren oro betan!
ariko gira txostakan
Kanta, dantza 'ta koblakan
eta prefosta pintukan!

Gregori

Nik Altabeko primari
behar deiot erran bi hitz,
Ezkontzeaz galtatürik
ene aitak manatürik.

Janpierra

Aitak ez ditak erranen
eneki nor ezkontüko den!
Maddi diat nik hartüren,
gük diägü deliberatzen!

Johaine

Badü orai hirur urte,
eman dügü pastorala
Zertako ez dügü arren
adelatzen maskarada?

Pette

Hori ideia hona dük!
ni Pitxu izan nahi nük!
Trebeskeria maite beität
eta dantzan trebe ez nük!

Joanes

Intxauspeko neskatilak
badakizüe dendari denak,
Herenegün erran ditadak
nitaz agradatürük dela!

Jüje

Joanes kasü eman ezak!
ez hadi hola lehia,
Aprendiz gazte batetaz
maitemintürük ümen da.

Goatzan arren bestala!
oro batetan lagünak!
Gazte gireno profeita
dezagün bizitzeaz.

Kantorea

(Besarkatiürrik zazpi potikoeek kanta)

Hogei urtetan gira potiko lagünak
Mündüko azkarrenak eta ederrenak!
Deusen lotsarik gabe gira hoberenak!
Neskatilakan ausart eta abilenak!

Ez horregatik pentsa ez deusak girela!
Badakigü egiten behar ordüan dena!
Egün oroz lanean, hori segür bena
Gure maiteena da, hots! neskenegüna!

Gure aitek bezala, Jinkoak nahi badü
Bide xüxena betik jarraikiko dügü.
Gü gaüza baten baizik ez gira haidürü
Bizia ezti eta hon izan dakigün.

4° jalkaldia

Jelki: Janpierra, apeza, errejenta, aleman bürüzagia, frantses bürüzagia, ama,
axaita, Johaine (alte), Pette (kontre), Maddi.
1914 Gerla Handia hasten da, gizonak frenterat deitürrik dira.

Janpierra

Hau berri lazgarria!
herenegün jakin dügüna
Gerla arra hasten dela
Alemanen kontrekoa.

Bürüzagiek dioie,
gerla hori llabür date,
Ürrietan etxen girate
hori hitzemaiten deiküe!

Ata, aitak kontatürrik
Sedanen agitürrik,
Izanik ere llabür
gerla gaüza zikina dük.

Errejenta

N'oubliez pas mes chers enfants
c'est notre revanche à présent,
Attendue depuis quarante ans
écrasez donc ces Allemands!

Le jour de gloire est arrivé!
il faudra leur faire payer!
Le déshonneur sera lavé!
l'Alsace Lorraine récupérées!

Pette

Hura ais' ari dük elestan
ez dik besterik bürüan!
Eüskaldün gazteak frentean
'ta hura trankil etxean!

Apeza

Pette, ontsa beha ezadak
eta bazter etzak düdak,
Nahi beitü ere Jinkoak
lehertürik Alemanak.

Züentako egün oroz
eginen diagü gük otoitz,
Goitzea üken dezazüen
etxerat arrajin zitaen

Johaine

Milesker Jaun erretora
Jinkoaren lagüngoarekin
Eginbearra eginen dügü
etsaia lehertüren dügü!

Axaita

Gerla ez dük gaüza hona!
ene begiz ikusi diat
Hilak milaka lürrean
mankatüak auhenetan.

Ama

BiHotza düt erdiratürük
zeren nik senditzen beitüt
Izigarrikeriak
beharko 'tüela egartü.

Maddi

Ai, ei, ai ene maitea!
berehala dük abioa,
Eman ezadak potta,
mentüraz sekülakoa.

Janpierra

Maddi hitzemaiten deizüt
ez zitela erreüs izan,
Noizbait arra jinen nüzü
eta ezkontüren gütüzü.

Aleman bürüzagia

Aski zinkuri jagoiti!
Frantsesak zer ürgülütsü (ostikatak)
Zankopean beste behin
aisa lehertüren 'tügü!

Frantses bürüzagia

Alsazia eta Lorrena
berresküalatüko 'tügü (ostikatak)
Eta ber zoinean Boxak
betikotz ohiltüko 'tügü!

5º jalkaldia

Jelki: Janpierra, Pette, Johaine, Darrieumerlou, Kervellec, Pellegrin, Dupont,
Ripoll.

Herman, Hans, Josef, Erich, Heinrich, Adolf, Manfred, Dieter.
1914 Gerlaren lazgarritarzúna bi gaintietarik kontatúa

Janpierra

Hau da lazgarrikeria!
oinaze izigarria!
Lekü güzietan gizonak
hilak eta herbaltüak!
Herman

Hau da lazgarrikeria!
oinaze izigarria!
Lekü güzietan gizonak
hilak eta herbaltüak!

Pette

Pantalo gorri horiekin
ontsa ikusten gütüe
Eta llapiak bezala
tirokatzen gütüe!

Hans

Erraiten zeiküen gerla
oso llabür zatekeala,
Bena senditzen düts ontsa
ni heben hilen nizala!

Darrieumerlou

Gure konpainia oro
deseginik izan dük
Gaskoin, Bretoin 'ta besteak
orai algarrekin gütük.

Johaine

Egia erran ez nüan uste
gerla hola zatekeala
Hobeki entelegatzen düt
bakearen bertütea.

Eri, gose, leher eginik
kinotsü, logabe, zikin!
Armak esküetan eta
adiskideen erdia hilik.

Kervellec

Adiskideak *Kenavo*
egün ni heben akabo
Ata eginik düt oro
bena ez düt ahal haboro!
Pellegri
Ene kortsikar lagünak
hilik dira denak oro
Et' Isula di billezza
ez düt haboro ikusiko

Dupont

Oro bardin gütük heben,
bürrataka taigabe
Alkar ondozka erorten
Alemanak ez gibeltzen!

Ripoll

Betik erraiten deiküe
ari girela irabazten,
Bena irabazle bakoitxa
düdarik gabe Herioa da!

Adolf

Frantses madarikatü horik
lehertü behar dütügü! (ostikatak)
Gora *Deutschland über alles*
gora gütarrak eta gü!

Bataila, bi bil eta bi zauritü (txainkü elkitzen) bedera gainti.

6° jalkaldia

Jelki: Janpierra, Allande, Pette, Johaine, Joanes, Jüje eta Gregori bere lagünak.
1915 Sei hilabeteren bürüan permisionea ükenik Parisen dira soldaduak.

Janpierra

Sei hilabete lüze da
beti hiltzeko lanjera
Lasterka ertzoak bezala
taigabeko harahonakan.

Heben Parisen üdüri dü
beste mündü batetan girela,
Gerlaren arana ez dük
ezagün ostatüetan.

Orotan emazte xügünak
bai eta gizon pantzuilak,
Hortan ontsa ageri da
gerla ez dela oroen latza.

Allande

Lagünak entzün düzüeia?
Etxegorriko semea
Permissionetik landa
Desertür ekarririk da.

Etxerat heltü ordüko
aitamak agurtü dütü,
Adio erran sekülako
Amiketarat joan zaikü!

Johaine

Gaüza ahalkegarria
zait eni desertatzea
Ützirik lagünak frentean
biziaren perilean!

Etsaia nahi badügu
manera honean goitü
Bihoztoi eta lotsorren
oroen beharra badügu

Pette

Nik aldiz konprenitzen düt
hilotz, odol, jente puzka,
Soberaxe ikusi dü
et' ez erran lotsor dela!

Oroek ontsa badakigü
zer datean gure zorteá,
Beso, zanko ala bürü
'ta biziaren galtzea

Ehiki ari hiz hi heben
adiskideen gaitzesten!
Ez ahatz Gerla Kürütxea
odolez dela irabazten!

Juje

Egia dük Etxegorrik
Kürütxea düala irabazirik.
Balentia handirik eginik
ta lagünak salbatüririk!

Gregori

Lagün sobera hilik da
besteak orano frentean,
Jagoiti berantegi da
gerla irabazi behar da!

7º jalkaldia

Jelki: Aüzapeza, Jujeren ama Mayi, Jujeren aita Pierra eta Marider Jujeren emaztegeia.

1916 Bata bestearen ondotik herriko semeak hiltzen dira eta familiak prebenitü bebar dira.

Aüzapeza

Aste hontan bigerrenez,
gütün madarikatüa!
Ta seme baten hiltzea
düt iragarri beharra!

BiHotza erdiratürük
gogoä sütan jarririk,
Erran behar deizüt Mayi
Jüje dela gerlan hilik.

Mayi

Ai berri izigarria!
Ai seme maitagarria!
Ezin jasanezko mina!
bizirik erhaiten naüana!

Pierra

Alsazia Lorrena orai
Eta horien propaganda
Ontsa orobat zaizkü!
Etxea baratzen da txainkü!

Marider

Ene Jüje maitea,
ene biziko ametsa,
Ene biHotzeko hatsa,
begietako argia!

Mayi

Indarrik ez düt haboro!
Herioak egün oroz
Herria tai gabe joiten
eta semeak ebasten!

Aüzapeza

Koraje har ezazüe
bai eta pentsatü besteer!
Orano seme bat badüzüe
Etxartean haboro ez düe!

Pierra

Abiloa hi hebentik!
aski badiat nik entzunik!
Besteen malürak ez dikük
iholaz ere egiten honik!

Marider

Daigün urtean behar günüan
bizi güziko ezkontü,
Orai etsitürük nüzü
ta nihaur biziren nüzü.

8º jelkaldia

Jelkitzen: emazteak kanpoko lanetan, Marilusa belar epaiten, Graxiana egür mozten, Maddalen zamari ferratzen, Elixabet eiherazaintsa, Margarita itotsemaiten, Gabriela inkatz egiten, Maiana bortüan ardiekin. Artzaintsak.
1916 Hamazortzi eta berrogeita bost urte arteko gizonak oro gerlan dira, indarkako lanak emazteek egin behar.

Marilusa

Indarreko gizonik
ez dizügu haboro herri(a)n,
Ez haur et' emazte baizik
eta lanak behar egin!

Ez nizün uste dailüa
horrenbeste pezü zela!
Bai eta belar moztea
hainen einegarri zela!

Graxiana

Gure senarrak oro
hürün joanik zizkützü,
Ohe bat ontsa bero
haboro zer den ez dakigü!

Egün oroz haixkora 'ta sega
tanpa tanpa, zigi zaga!
Egür moztü, hautse, bildü
zinez indarkako lana!

Maddalen

Baratzen diren gizonak:
haurrak eta agureak,
Zauritüak, herbaltüak
eta ilherrian hilak!

Holako zamari handia
ekürü egoiten ez dena!
Usukia, ostikata,
nik ferratü ahal düta?

Elixabet

Ardanoi ene senarra!
sügea bezain auherra!
Ez beti xüxen xüxena
bena handi düt haren mentsa!

Ogi et'arto zaküak
nola altxa bizkarrealat?
Hazi eihera harria?
xahatü eihera naza?

Margarita

Ni triste nüzü arratsen
et'üsü nigar egiten,
Gizona ez badüt etxen
nola niz kontsolatüren?

Pertika lüze honekin
nik ez dakit nola egin!
Idiak joan eta jin,
nahi düdana ez egin!

Gabriela

Orit zideia lagünak
gerl'aitzineko denborak
Zoinen ziren alagerak
'ta arrenküra gabeak?

Ai, oihanaren erdian
haurrak ütziarik etxean,
Inkaztoi egin beharra
eta nik ez jakin nola!

Maiana

Gizonak beren bürüaz bete,
errespetü güti düe,
Sofri arazten gütüe,
'ta nola bizi horik gabe?

Aurten hirugerren aldiz
emazteek bortüka egin
Ez nizün uste lan hori
hainen gogor zitaikeenik!

Artzaintsak kanta

Satanak

(8° jelkalditik landa)

Jelki: Asmodée eta Samaël satanak.

Asmodée

Samaël ene lagüna
orai behar diagü adelatü
Odol saltsa handia
eta gerla hori gogortü!

Samaël

Arrazoi dük orai artekoa
txaskoa baizik ez dük izan!
Eta gaüza seriosetara
bertan behar diagü igaran!

Asmodée

Bai akort! Isea dezagün!
sei hilabetez, egünez egün
Milioi bat hil izan dadin
bena sarraskia non egin?

Samaël

Ez hadiala inkieta
nik atzaman diat leküa.
Berantzen zitadak ikustea
Verduneko sarraskia!

Ah, ah, ah, ah!

(Satanak oro sartü eta dantza)

9º jalkaldia

Jelki: Janpierra, Pette, Johaine, Darrieumerlou, Kervellec, Pellegri, Dupont,
Ripoll. Herman, Hans, Josef, Erich, Heinrich, Adolf, Rudolf, Dieter.
1916 Verdun-eko bataila izigarria.

Janpierra

Azken hiru egünetan
arroilak gure etzangiak!
Eta kanoien burrunban
lo gabeko gaü lüzeak!

Bürüzagiek dioie
azken bürrata dateala!
Eta baita bihar ere
etxen giratekeala.

Herman

Verdunen bildü gira gü
Frantses horien lehertzeko (ostikata)
Indar bat eta gük dügü
gerla hau irabaziko!

Hans

Arrazoi dük Hermann anaia!
dügün ürrent orai gerla! (ostikata)
Eta etxerat sar gitean
Denak ospez estaliak!

Pette

Tai gabe artilleria
Alemanen lehertzeko,
Verduneko lürraldea
gorriz da koloratüko.

Josef

Ene lagünak oro
jagoiti hilik ziztadak!
Ata behar egün oroz
arrabiatü atakiak!

Johaine

Ene begien aitzinean
ikusi ahala hürrün,
Hilez estalirik lürra
odolez bete arroilak!

Erich

Bala hartü düt lepoan
obüs puzka sabelean,
Badakit heben berean
hilen nizala lohian.

Darrieumerlou

Hilh de pute zer egüna!
houn ei ene lagüna?
Gaza begietan eta
galdürik diat ikusmena!

Heinrich

Heben bizirik egoiteko
manera bat baizik ez da
Bi minüta beno haboro
ez baratü ber xiloan!

Kervellec

Behar ere aigardentak
bürüa berotzen beiteikü!
Eta üngürüko lanjerak
ahazten lagüntzen gütü!

Adolf

Hainbeste sofrikariok
Bilakarazten näü ertzoz! (ostikata)
Laster düzüe ikusiko
Ükenen düit mendekio!

Pellegrini

Heben nago etsitürük
et'ezinago einerik!
Zer ote zaikü hobeki?
bertan hil ala bizi?

Rudolf

Biba zü baioneta!
ene lagün lazgarria! (ostikatak)
Sabelen ikertzalea!
alargüntsa egilea!

Dupont

Oro teiu eta buiska
arratoi eta zorriak!
Ez bagütü erhaiten balak
eginen dü eritarzünak!

Bataila (lau hil gainti bakoitx)

Satanak
(9º jelkalditik landa)

Jelki: Asmodée eta Samaël satanak.

Asmodée

Gure nausia kontent dükek!
Iana ontsa egin beitätü:
Bekan dik hain denbora gütiz
hainbeste jente bildü!

Samaël

Holako gaüza odoltsüetan
aspaldian gütüük üsatürük.
Ata aitortü behar diat egün
nihaur ere nizala greütürük.
Asmodée

Ez hadiala hola erreüs izan
hi gazteegi beihiz orano!
Ikusiko dük mente hontan
badükek sordei eta haboro!

Samaël

Hitan konfidantxa badiat
Beti sordei atzamaiten dük!
Gizonek ontsa lagüntzen haüela
Halere aitortü behar dük!

Ah, ah, ah, ah
Sataneria oro dantzan.

I0° jalkaldia

Jelki: Janpierra, Pette, Johaine, Darrieumerlou
Herman G., Josef G., Heinrich H., Adolf H.

1918 Azkenean gerla ürrentzen da bena beste baten azia jadanik ozitzen ari da.

Janpierra

Hori dügün egün handia!
bai boztarioz betea!
Gerla egün ürrentü da
üdüri dü berpiztea!

Pette

Gerla gük dügü gisala
jagoitikan irabazi...
Bena hebentik aitzina
besorik gabe nola bizi?

Johaine

Bedeziek erran ditade:
salbatüko dük begia
Bena metraila puzka
baratüko zaik bürüan...

Darrieumerlou

Txanka esküan, zankoa motz,
ez nük haboro hon laneko!
Emazteari gizon erdia
Ask' izanen ote zaio?

Herman G.

Izan gira koditürrik!
bürüzagiez traditürrik!
Etsaiez ümiliatürrik!
eta Jinkoaz ützirrik!

Josef G.

Txainkü izanagatik
nik nahi nüan gerla egin,
Ganoa düt propagandan!
hortan ariko niz lanean...

Heinrich H.

Lüsko izanagatik
egia non den ikusten düt!
Jüdio zikinek deiküe
borroka hau galarazi!

Adolf H.

Judioek eta Marxistek
deiküe bizkarrean,
Lantatü barna nabela
Eta galarazi gerla.

Eta bularrean düdan
bürdüinezko kürütxeak
Ez dik eztatzen iholaz
ene bihotzeko herra!

II° jalkaldia

Jelki: Janpierra, aita, ama, Maddi, Johaine, Pette, Allande, Gregori, Elixabet,
Gabriela, Margarita eta Maiana.

1919 Herrialat ützültzea, alegrantzia geroari бүрүз.

Ama

Ene gaixo Janpierra
aigü ene besoetara,
Handi diat boztarioa
bizirik arra ikustea!

Aita

Gerlak ez dik malür baizik
gure mündüari ekarten!
Orai baztertü behar dik
ahatze lehen bai lehen!

Janpierra

Aita nola nahi düzü
gerla hau ahatz dezagün?
Adiskide sobera gük
frentean galdü dizügü.

Nik nahi dizüt prefosta
gibelean ützi gerla,
Hasi bizitze berri bat,
bena harra fütüan da.

Egin dezagün suheta
hau izan bedi azkena!
‘Ta gure sofrikarioa
ez izan debaldekoa.

Maddi

Egün oroz egürüki haüt
esküak kürütxatürik,
BiHotza daldaratürik
eta nigarra begian.

Orai hitzeman ezadak
ülüngüa joanik dela,
Bai eta bizi osoa
botin igaranen dügüla.

Gabriela

Hatüka adelatzeko
organ ezarri dütügü
Behar diren gaüzak oro:
Eskalanpoi, ohe, dailü...

Inkatz egiten bortüan
Lau urte igaran ondoan,
Nahi nüzü libertitü
Eta berehala ezkontü!

Margarita

Arrazoi dün Gabriela!
Jin araz dezagün apeza,
Eta benedika beza
Gazte horien ezkontzea.

Jelki apeza eta aingürüak

Ezkontzea egin eta aingürüak kanta

Maddi eta Janpierra
züen ezkontze egüean,
Opatzen deizüegü zorihona
xantza 'ta osagarria.

Igaran berri diren urteak
izan dira lazgarriak!
Orai biak algarrekin
goza ezazüe bizia.

Jinkoa züekin izan bedi
eta haur biezazüe eman,
Arbasoen bidea jarraiki
errespetüan eta bakean.

Tauladan direnak dantzan

Oro sartü kantatzeko espos esposen kantorea.
Zoinen eijer den bedatsean lehen lilia
Baratze xokoan eijer da ageri.
Zoinen eijer den goizaldi batez jüntatürük
Bi espos esküak emanik algarri.
Egünko egünak hortara ekarri gütü
Ohore espos eta esposari,
Gük bizi goxo bat suhetatzen dereizüegü
Betiko xantza hon eta osagarri.

Espos maiteak orai jakin behar düzüe
Züen honetan zer datean geroa,
Batean plazer bestean aldiz arrenküra
Ustegabeko nahigabekoak.
Bena egündanik biga baziratekie
Ais' egarteko züen eskernioak
Bai eta pekü güzien kontsolagarri
Egün jüntatü zütüen amodioa.

I2° jalkaldia

Jelki: Janpierra, Maddi, Joanes kosia Parisen dena, Gilberte haren emaztea.
Bi bankero.

1929 Mündüko krisia ekonomikoa, berriz ere mündüa kordokatzen ari da.

Joanes

Hogei eta hamargerren
urtea dük gaixki hasten,
Bankoan nüan diharüa
elürra bezala hurtzen!

Gilberte

Hori da ezin sinetsia!
oro kanbiatzen ari da!
Gü atzo ginen Jaundiak
egün joanik errekalat!

Joanes

Baserrian jateko,
edateko, beztitzeko,
Beharrezko direnak oro
züek ba'tützüe eta franko.

Hortako deat galtatzen
oi ene kosi maitea,
Urte honak jin artean
gure haurra har dezaian.

Janpierra

Gük üken diagü grazia
hiru hurren ükeitea,
Eta segür hurak dira
gur'etxearen altxorra!

Beren beso txipiekin
lanean ürgeizten gütie,
Beren botz argiarekin
alageratzen gütie.

Maddi

Etxea txip'izanik ere
oheak handi dütügü,
Badenean zazpiren lekü
badate zortziren segür!

Bankero I

Hanitxen gogor izan da
iragan den urte hura,
Hein bat ontsa elkitzen niz
irabaziak doblatürik.

Bankero 2

Bai nik ere püntü batez
orkeian üken düt bürüa,
Et' erori da haixkora
bena kantüan igaran da!

Bankero I

Langabezia, praubezia
langileen etsipena,
Horik oro deüs ez dira!
gure arrenküren eretzean!

Bankero 2

Karrikako oihükariak
ez dakie printzipala,
Salbatü behar den bakoitxa
dela beti kapitala!

Bankero I

Bai arrazoi dük lagüna!
goatzen betik aitzina!
Gerla hon batek hori oro
dikük bertan konpontüko!

I 3° jelkaldia

Jelki: Janpierra, Pette, Johaine
Eva Braun, Margarete Himmler, Gudrun Himmler (haren alaba), Magda
Goebbels, Ilse Hess, Emma Goering, Anna von Ribbentrop, Martha Von
Papen

Janpierra

Münich-eko hitzarmena
tradizio bat izan da,
Lehenik Txekoslovakia
ondotik oroen gerla!

Pette

Hitlerren aitzinean
oro belarikatu dira! (emazteen ostikatak)
‘Ta gobernuko gizonak
bai segur oiliatak dira!

Eva

Ene gizona orai da
Mündüko azkarrena !
Frantsesak eta Inglesak
Goititüko tügü denak !

Johaine

Laur urte arroiletan
orai horren ikusteko! (emazteen ostikatak)
Koditürük izan gütük
ez diagü honartüko!

Margarete

Ene senarrak aldiz
Mündüa xahatüko dü!
Jüdioak 'ta bohameak
Süian erraraziko dütü!

Gudrun

Nik aita indar oroz
Gogotik lagüntüko düt!
Hil arte behar bada
Mündüko nausiak gira!

Janpierra

Frentetik arrajitean
uste günian zatekeala (emazteen ostikatak)
Delako Gerla Handia
arauz Azkenen Azkena

Magda

Nik ere Josef maitea
Lagüntzen düt egün oroz!
Egiteko propaganda
Handitzeko gure Reich-a!

Pette

Berrogeita bost urterekin
gü girade zaharregi, (emazteen ostikatak)
Gerla ezin dügü egin
beharko dügü egari.

Emma

Nik Hermannn erran deiot
Gerla irabaziko dela
Baliatzen badütüğü
Hegazkinak eta bonbak!

Johaine

Gük gerlaren egiteko
badütüğü zamariak! (emazteen ostikatak)
Hitlerren gizonak aldiz
Messerschmidt eta Panzerrak!

I4° jelkaldia

Jelki: Janpierra, Maddi, Jüsef (horien semea), Johaine, Elixabet. Adolf H.
1943 Oküpazionea, Alemanak berrietan, STO, makiak eta ibeslariak.

Janpierra

Laur urte badüt emanik
lohian et' arroiletan,
Alemanen ikusteko
gure karrikako plazan!

Odola herakitan diat
bürüa lehertzekotan!
Bena ekürü egon behar
sinatü dik Marexalak.

Johaine

Eni ere gaitz zitadak
horien heben ikustea!
Et'ez dakiat ez düdanez
bihar hartüko Makia!

Altzaiko alde gainean
ba ümen da saldoxkot bat,
Gizonak 'tük STOealat
joan nahi ez direnak

Elixabet

Ez dirok holakorik egin
etsaia mendekatüko zaik,
Familia, haurren gainen
mentüraz herrian gainen.

Maddi

Jinik dira txakürrekin
herria üngüratürik,
Txerkatzen ümen dütüe
iheslariak gorderik.

Janpierra

Jüsef ene semea
abiloa bordaltealat,
Eta han diren jenteak
eraman etzak gordagialat.

Erran ezek bihar goizan
bideari lotüko girela,
Eta laster Espainialat
heltürik diratekeala.

Halere somatzen düt nik
laster date ürrentürik,
Alemanek Stalingraden
gerla hau düe galdürik!

Adolf H.

Berriz ere ni goitürik!
ametsak ezabatürik!
Lana ezin ürrentürik!
audela gaixki ikusirik!

Bena bakean banoa
ükenen beitüt segida,
Staline, Polpot, Maotsetzung
Bush, Ben Laden 'ta besteak ...

15° jelkaldia

Jelkitzen: Jüsef, Sebastia, André, Philippe, Joanes,
1947 libratzea taigabeko mozkorraldietan ospatzen düe herriko gizon gazteek.

Sebastia

Krixka dezagün anaiak!
gora gü eta gütararak!
Ohiltürik Alemanak,
gure etxeetan nausiak!

Jüsef

Goizanko hamar orenetan,
oro ontsa berotürik,
Dügün kanta algarrekin
gabeziak ahatzerik!

Andre

Barda sartü nük etxerat
mozkor eta lahapoka!
Urdea balde kurrinka
eta erriz lehertürik!

Philippe

Bai entzün haüt iragaiten!
etxeko barriogan nündüan,
Lürrean ttottotürik
ene botilaren hüsten...

Joanes

Ostatüan ginelarik
gü bilaxkan gütüük hasi,
Eta Estebe aüzoak
erhia ditak usuki.

Jüsef

Mündüa kanbiatürik da
neskatilak joaiten dira,
Eta gure etxalteak
orai txipiegi dira.

Gü ezkontü nahi ginen
apatürik nüan etxen,
Bena Margaritaren amak
Ez züan hori honartzen!

Zer, nik solt egon beharko!?
orobat lagünak oro!
Hortako, bizi gireno
edanen dügü ahazteko!

Amak galtatzen ditadak;
zentako mozkortzen nizan!
Balaki holakoetan
zoin ontsa senditzen nizan.

Philippe

Dena dela guretako
geroa zaikü akabo,
Txostaka eta liberti
gitean ahal dügüno!

Jüsef

Bai arrazoi dük lagüna!
ekar ezak godaleta,
Eta ontsa giren artean
rikarra dezagün edan!

I6° jalkaldia

Jelkitzen: Janpierra eta Alexis Etxetto aüzoa.

Janpierra

Semea etxean denak
berrogei urte jagoiti,
Eta beti bardin ari dük
edan, edan 'ta liberti.

Alexis

Etxondo haboroxeetan
badakik ber gaüza dela,
Joaiten dütük neskatilak
bera egoiten potikoak.

Janpierra

Bi gerla egin diagü
etxearen begiratzeko,
'Ta sortü giren mündüa
bertan dük desagertüko!

Alexis

Ütürriko hur freskoa
ez diagü haboro edanen,
Hodi ülün batetarik
horra dena gük hartüren.

Ekiak ez gitik haboro
ere iratzarraraziko,
Elektrizitatearekin
gü orai gütük biziko.

Janpierra

Arrazoi dük adiskide
hori deitzen düe “le progrès”,
Bena horien pakatzeko
züek sosik ba ote düzüe?

Ez diat haboro ikusten
mündüa norat ari den,
Zaharrek eginak oro
ari dütük desegiten.

Lehen ez güntüan ohartzen
zoinen ontsa bizi ginen,
Bizia segür gogor zen,
apürrekin irus ginen.

Gure dailüaren leküa
motodailüsak hartü dik,
Bai eta bere herotsak
ibarrean aranutzen dik.

Alexis

Merkatü egünetan
Atharratzeko plazan,
Ez dük ja lehen bezala
Jente apürrago bada.

Hortzaz kontent direnak
dütük ostatü jabeak,
Lanean beno denbora haboro
han igaraiten dik gazteriak.

Janpierra

Gure mintzajea ere
hasi dük zonbait baztertzen,
Direna izateaz ahalke
dira jente hauek ote?

Maskarada, pastorala
bekantzen hasirik dira,
Dantza jauziak, kantoreak
ere hala hala dira.

Alexis

Etxauetako bidea
ürrentü den bezain sarri,
Katauak kargatü eta
jenteak oro ezkapü.

Janpierra

Bortüa hüsten ari dük,
etxeak hüsten ari 'tük,
Bürüak hüsten ari dütük
zer agitük' ote zaikü?

Oroek kanta

I. Eüskal herriko plaza hanitx hütsik dira
Norat hurtü dira hanko pilotari(a)k
Ostatüetan bazter güziak ixil dira
Norat galdü dira leheneko khantari(a)k?
Ez da herri(a)n zahar zonbait baizik
Gazteak oro ezkapirik

Errepika :

Jeik' hadi Eüskadi eta mintza hadi
Ozenki gure gazteriari,
Behar direla beti fidelki kontserbi
Gure üsantxa zahar horik

2. Herriko bestak hasirik dira bekantzen
eta dantza jauzi(a)k osoki nülätzen,
Gazteria ez da kurri baizik satisfätzen
Kurritzen da bena gaüza güti ikasten;
Arte hortan aldiz zahar horik
Berak dira tristerik etxen.

3. Zuri otoitz bat gure Mari Maidalena
Aholka gitzazü, mendi gain hortarik,
Üsantxa zahar horik direla ederrenak
Eüskaldün kantari(a)k, dantzari(a)k, pilotari(a)k
Dütügün hontarzün baliosenak
Ez direia jei eder horik?

I7° jelkaldia

Jelkitzen Janpierra eta bere lagünak

Janpierra

Bizi orotan erauntsi dügü
lanean, gure aiten etxeak,
Txütik egon ditean
lehen bezain ederrak.

Gerlak zauritü ondoan
Herioak biHotza ürratü,
Ene emazte galanta
ustegabeen eraman dü.

Biziaren arratsean
oro erorten üngürüan,
Betikoz uste zirenak
bertan deüs ez diratekeanak.

Eskentü dügü odola
orobat gure gaztaroa,
Beharrünean ürrea
eta non da probetxüa?

Gure etxalte maitea
orai segidarik gabe,
Soroak eta alorrak
kaparrek hartüren 'tüe!

Sütondoko bellopean
jiten denean ülüntzea,
Ez dügü haboro entzünen
haur nigar eta erriak.

Gure erleak joan dira
kobainak ütziarik hütsik,
Entelegatü beitiie
heben ez dela gerorik.

Hurak beti ixuriko
Bena nik ez düt edanen,
Et' aizeak buhatüko
Bena nik ez hats' hartüren.

Biziaz eta hiltzeaz
lehen ez günian düdarik,
Girenaz eta geroaz
ez diagü orai düda baizik.

Egin ahalak eginik
bena ez kausitürik,
Janpierra orai bahoia
garratz eta etsitürik.

Hiltzen da

Hil kantorea

Gaitz da hiltzea eta mündüa, hola abandonatzea
 Bena tenorea jinik denean, gaüza honartü behar da.
 Hogei urtetan hil diren horik, üsü ene gogoan dira
 Gerlako lagün dohakabeak, gaztaroko adiskideak,
 Ene aldi da, horra nitzaizüe, egin ezazüe leküa.

Emaztea hilik 'ta haurrak joanik, premüa ezkongabea
 Ezin düit haboro, gogorregi da, holaxe jarraitzea.
 Ene etxea, ene herria, ene mündüa ere bai,
 Ene esküek, jagoitikoan, ez zütüe zerbützatzen
 Jinen ote da arrapiztea, nik ez nakike erraiten.

Lehen itsusi 'ta baztergarri zena eder bilakatzen,
 Modaz igaranik, deüsentako hon, arraberriz zerbützatzen.
 Errota beti üngürakan ari da, hala hala da mündüa,
 Ikusiko da Basabürüan denez agitzen ber gaüza
 Bena Eüskaldüna, temati beita, mentüraz agitüko da.

Gibeleetik eta erditik sartzen dira bi gazte, potiko bat eta neskatila bat

Potikoa

Ehortzetaliar jin gira
 axaita barda zentü da,
 Ützirik beitü mündüa
 entzün gabe berri hona.

Joan ziren aitetamak
 bena gü arrajin gira,
 Eta baratü direnekin
 zerbait egin ahalko da.

Neskatila

Non dagoen zorihona
entelegatü dizügü,
Ez nüzü lanaren lotsa
heben bizi nahi nüzü.

Hiri horietan bizitzea
emekiñi hiltzea da,
Bortizkeria, kozadüra
herotsa, bakoixtarzüna.

Biak batetan

Lehenekoak gogoan
'ta ondokoen honetan,
Oi Basabüru maitea
eginen dügü berria.

Parisen edo Bordelen,
han ez da gure bizia,
Ez gure mündüa eta
ez gure irustarzüna!

Anai-arreba maiteak
jarraiki gure ürratsak!
Etxeki odol beroa,
Azkar maite Xiberoa.
(*berritan eman eta ozen!*)

Azken perediküa

Hogeigerren mente hori
traukatü düen bideak,
Bühürri, odoltsü, latzak
Üsü ürrikalgabeak.

Hainbeste malür eta tristeziak
gogoa ülüntzen deikü,
Halere ürrentzeak
argi ederra piztü dü.

Bizia errota balde
aitzina doa üngürakan,
Sekülan eküratü gabe,
berantiarrak ützirik han.

Norat ari giren jakiteko,
Nor giren jakin beharra!
‘Ta guretako geroa
izanen da eüskararena

Nahi düanari Historiak,
erakaspentak emaiten,
Bakea nahi dügüla,
dügün erran lehen bai lehen.

Bigerrenik errespetüa
zor zaikün gaüza handia,
Ez, ez beita erdeinüa
aholküleri egokia.

Hanixtarzüna azkenik
gure hirugerren suheta,
Europan bizirik egon dadin
sekülakoz Eüskaldüna !

Aitam' arbaso maiteak
zin dagizüegü heben,
Züek lantatü aziak
Liliak dütü emanen.

Hainbeste gazteen aitzinean,
nola düdatü geroaz ?
Zohardi date zelüa
Eta bizi Basabürüa...

Azken kantorea

Pertsonaiak

Janpierra
Aita
Ama
Axaita
Axama
Koblakaria
Apeza
Errejenta
Allande
Pette
Gregori
Johaine
Joanes
Jüje
Maddi
Darrieumerlou
Kervellec
Pellegri
Dupont
Ripoll
Aüzapeza

Mayi
Pierra
Marider
Marilusa
Graxiana
Maddalen
Elisabet
Margarita
Gabriela
Maiana
Gilberte
Alexis
Sebastia
Jüsef
André
Philippe
Joanes E.
Potikoa
Nekatila
Bankero I
Bankero 2

Asmodée
Samaël
Aleman бүрүзagia
Frantses бүрүзagia
Herman
Hans
Adolf H.
Josef
Erich
Heinrich
Rudolf
Eva B.
Margarete H.
Gudrun H.
Magda G.
Ilse H.
Emma G.
Anna R.
Martha





